



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Oharra
BREXITA NEGOZIATZEKO 5. ERRONDAZ

Noiz: 2017ko urriaren 9tik 12ra arteko astean

EMAITZA NAGUSIAK

Beste behin, negoziazioen bosgarren saioak blokeo egoera agerian uzteko balio izan zuen, bereziki finantza kontuetan.

Herritarren eskubideak direla eta, EB uzteko akordioak eragin zuzena izango zuela eta herritarren eskubideen interpretazioa EBn eta Erresuma Batuan guztiz koherentea izango dela erabaki ondoren, familia berrelkartzeak eta Erresuma Batuan eskuratutako eskubideak –EBra– esportatzeak eztabaiden erdigunean jarraitu zuten. Bien bitartean, Erresuma Batuak eskubideon izapide sinplifikatuaren prozesura lantzen jarraitzen zuela informatu zuen.

Irlanda dela eta, oinarrizko printzipioak erabaki ziren Bidaia Eremu Komunaz, eta Ostiral Santuko Akordioen esparruan Ipar eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren lan arloak identifikatzen eta plangintza egiten lan ikaragarria egiten jarraitu zen. Azkenik, EBk irailean proposatu zituen oinarrizko sei printzipioak erabaki ziren, lanak gidatzeko, Ostiral Santuko Akordioak babeste aldera.

Hala ere, erronda honetan, finantzen akordioa gai gatazkatsuen izan zen, eta blokeo egoeran dago. Erresuma Batuak bere konpromiso guztiak beteko dituela aitortu arren, horiek zehazterakoan konkretatzea falta da, eta EBren egonezina goraka doa. Erresuma Batuak, aldi berean, EBren negoziazio taldeari malgutasun eta sormen falta leporatzen dio.